


: Ikastola ta Otoitz-Etxea



B ardin andereinoak,
maixu ta guraso,
ona, esku-artean
nai ainbat arazo...
Praile ta danok ekin
ez lepoa jaso;
jarri alkar-lanean
buru, biotz, beso.

A ukera ederra da
euskal ikastola,
gaztetan landatzen da
geroko arbola...
Zuzen jokatzan Jaunak
lagundu daiola,
ongarri izan dedin
Eubako kaiola!

Goian: Bizitza ~~...~~ z otoitzean batu batu garen pasiotarran taldea.

Behean: Euskal ~~...~~ abade ~~...~~



B ultzatu nai ditugu
ekintza, asmoak,
eliz barrizatzeko
ain bearrezkoak.
Euban "aixerrota"
beteaz auspoak,
zuingana garoaz
Jaun Gurutzekoak.

A bade, praile, monja,
emakume, gizon...
entzun, gazte ta nausi:
begira ez egon!
Norbere buruari
aukera bat emon:
Ez aztu zeure Etxea
EUBAn zelan dagon!!!

A. Martzel

EUBA:

E uba aldetik nator
zerbait esan naian,
jakin gura dauanak
zuzen jakin daian:
Pasiotarrok gabiltz
patxada alaiian,
laguntza bat eskeinduz
gogo onez Bizkaian.

E z dago dana emen
oraindik esana,
bada GOGARTETXE bat
barriztuta dana:
Ortxe dogu jarrita
gaur gure afana,
ebanjelizatzea
bizitza ta lana.

U me, gazte ta nausi
milaka ezagun,
Bizkaian baditugu
makina bat lagun...
Danon alde da gure
otoitz gau t'egun,
zeuontzat eskatuaz
bake ta osasun.

U morea badogu
gogo ta indarrak,
bultzatzen gaitulako
goitiko sugarrak.
Ebanjelioz jantzi
sendi, lan ta abarrak,
au dogu gaur aukera
guk Pasiotarrak.

B atian mixinoak,
bestina jardunak;
landu doguz Bizkaiko
erri ta auzunak.
Okerrak zuzendu ta
argitu ilunak,
euskaldunok gaitezana
beti fededunak.

E men dogu Ikastola
gora LAUAXETA!
Geiago ezinean
goraino beteta.
Pasiotarrok beti
auxe gara eta:
euskera maite dogu,
ez da ameseta.

A diskide ta lagun,
orra gure barri:
geiago nai badozu,
Eubara etorri.
Inor ortik balebil
estu eta larri,
zerbait egiteko prest,
lagunduz alkarri.

U rrinetatik datoz
ia ia bi mila,
etxe baten barruan
a ze ixkanbila!
Bizkaiko gurasoak
datoz zerbait bila:
"Euskaldun ta fededun
atera mutila"!